

HEOko azterketa eredia – EUSKARA B2–Ahozko Bitartekotza

Hormirudi honek zure lagunaren arreta erakarri du eta zeri buruzkoa den azaltzeko eskatu dizu. Azal iezaiozu:

- Zein jarduera iragartzen duen kartelak
- Xehetasun garrantzitsuenak

Prestaketa: 4 minutu

Azalpena: 2-3 minutu

TEKNOLOGIA BERRIAK: PANTAILAK

Dekalogo haurtzaroan eta nerabezaroan pantailak segurtasunez erabiltzeko

1. Non.
Etxean, ordenagailua, kontsola... hobe leku komun batean.



2. Noiz.
Errespetatu lo orduak, harremanak, ikasketak, bestelako jolasak...



3. Zer.
Sarbideak, edukiak, jolasak... neska edo mutil bakoitzaren adin eta garapen mailarako egokiak izan daitezela.



4. Nola.
Norberaren pribatasuna eta intimitatea zainduz. Norberaren datuak, informazioak eta irudiak babestuz.



5. Errespetuz.
Beti eskatu baimena etiketatzeko eta irudiak eta informazioak pasatzeko. Kontuan hartu norekin partekatzen diren.



6. Zenbat.
Haiekin bizi, ez haientzat. Adostu zenbat denboran erabili.



7. Zertarako.
Pantailak eta internet helburu zehatzekin erabili, ez asperduraz.



8. Alternatibak.
Beste aisia mota batzuk proposatzea, familiarekin partekatzea jarduerak.



9. Erabilera desegokia.
Hitz egin ikusmenean izan ditzakeen ondorioez, isolamenduaz, sedentarismoaz, arreta galtzeaz...



10. Beti.
Hitz egin, entzun, galdetu eta laguntza eskatu. Etxean ematen dugun ereduaz hausnartu.



LG NA 2853-2019

Nafarroako Gobernua



Gobierno de Navarra